

“Apustu zaila da, baina bete egiten nau”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia ■ Argazkia: Teknopolis

Itziar Urizar Arenaza

Biokimikaria



Itziar Urizar Arenaza

Bilbo, 1989.

- **2012an Biokimikan** lizentziatu zen (EHU).
- **Ikerketa Biomedikoa masterra** egin zuen.
- Geroztik **tesia** egiten dabil, EHUren beka batekin, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean, Fisiologia Sailean.
- Tartean, bi egonaldi egin ditu atzerrian, Danimarka Hego-ekialdeko Unibertsitatean.

Itziar Urizar Arenaza mailaz maila iritsi da Biokimika ikertzerara: lehenik hiru urte Biologia ikasten, bi urte gehiago Biokimikako adarrean, lizentziatura lortu, ondoren masterra, eta orain, tesia. Hain zuzen, tesiaren azken txanpan dabil buru-belarri, eta hala aitortu du: "Nire bizitza tesia da orain".

Hala ere, agerikoa da gustura dabilela, eta haren hitzek ere hala dela berretsi dute: "Betidanik gustatu zaizkit natura, animaliak... eta uste dut asmatu nuela Biokimika aukeratzean. Azken finean, hau da gustatzen zaidana: ikertzea, galderei erantzuna ematen saiatzea".

Etorkizunean, baina, ez daki horretan jarraitzerik izango ote duen: "Oso zaila dago dena. Azkenean, lehia handia dago gure artean, eta gutxi batzuek baino ez dute lortzen aurrera egitea. Horretarako, ezinbestekoa da curriculum ona izatea, eta hori lortzeko, edo kontratu bat duzu edo kanpora joan behar duzu. Hortaz, tesia bukatutakoan, agian atzerrira joan beharko dut".

Bitartean, bere lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen da. "Horrek, batzuetan, sakrifizioak egin beharra ekartzen du, baina, bestalde, zerbait ondo ateratzen denean edo oztopo bat zuk bakarrik gainditu duzunean sentitzen duzun goraldia ez dizu beste ezerk ematen. Apustu zaila da, baina bete egiten nau".

Urizarren esanean, tesia dela eta atzerrian egin dituen egonaldiak ere oso motibagarriak izan dira.

Bitan izan da, bietan leku berean, Danimarkan, eta hango zuzendariak, "hemengoak bezala", asko animatzen zuela gogoratu du. Azkenik, taldean lan egitea ere eskertzen du: "Askok laguntzen du jakiteak ez zaudela bakarrik; une zailetan, hor daude kideak, zurekin batera bilatzeko irtenbide egokiena".

Espermatozoideak ikergai

Lagundutako ugalketan espermatozoideen hautaketa hobetuko duen biomarkatzaileen bila dabil lanean. Zehazki, hartzaile opioideen inplikazioa ikertzen du, giza espermatozoideen ahalmen ugalkorrean. Ikergaia dela eta, txantxa ugari entzun eta egiten ditu; lana serio egiten du, ordea: "Egia da laginen kontura adarra jotzen ibiltzen garena lagunartean, baina laborategian dena Etika Batzordearen irizpideen arabera egiten dugu", azaldu du.

Ikertzaile-senarekin batera, badu Urizarrek beste ezaugarri bat: komunikatzaile ona da. Askorentzat, ez da erraza izaten zer ikertzen duten azaltzea ingurukoei. Urizar, aldiz, ondo moldatzen da, eta hala erakutsi du behin baino gehiagotan. Esate baterako, Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako [Txiotesian](#), Elhuyarren [Wolfram Deuna](#) ekitaldian eta Teknopolis telebista-saioaren "[Atariko proba](#)" atalean: "Gustatzen zait jendeari azaltzea zertan nabilen, eta era barregarri edo erakargarri eginez gero, errazagoa da arreta jartzea eta ulertzea". ●



Elkarrizketa osoa
webgunean



Kultura
Zientifikoko Katedra
Cátedra
Cultura Científica

UPV/EHU Kultura
Zientifikoko Katedraren
lankidetzan egindako atala.